

Nafarroako fraideak

En la entrega precedente de esta sección histórica, pudimos ver las vicisitudes del monacato navarro; en esta ocasión, se ofrece una visión panorámica de la historia de los frailes de las Ordenes Mendicantes, atendiendo también de paso a la Compañía de Jesús y circunscribiéndome a los siglos XIII-XVIII.

XIII.mendeak aldakuntza nabariak ekarri zituen Nafarroan: lurralde zabala galdu zuen Erreinuak (1200: Hiru Probintziak), dinastia berri batek hartu zuen Koroa (1234, 1274), Foru Zaharra idatzi zen (1238), eta gerra zibil bat gainditu (1276). Garai horretakoak dira Eskeko Ordenen sarrera eta garapena ere.

Hirietarako Eskeko Ordenak

Ezaguna da, XI.aren azkenetan hasita XII. mendean zehar, nolako hiri-garapena ezagutu zuen Nafarroak. Gogoratu besterik ez dago hiri eta hiribilduetarako emandako Gutunak. Baina aldakuntza sozial hori ez zen egin gatazka sozialik gabe, Iruñeko kasuan behin eta berriz ikusi ahal izan zen bezala (1180, 1222).

Horregatik, bistan da horrek guztiak premia erlijioso berriak ekarri zituela, Europako hainbat lekutan gertatutakoaren antzera. Horregatik, beste Erreinu eta eskualdeetan egingo zen eliz politika berari heldu zioten Nafarroako gizarteak eta Koroak: Eskeko Ordenei deitu zitzaaien hirietako erlijiotasuna gida zezaten.

Euskal Herrian Nafarroa izan zen Eskeko Ordenei lehenengo eta zabalki ateak ireki zizkiena: Erreinuak, batzuetan berehala eta bestetan geroago, Eskeko Ordena nagusi guztiek

izan zuten etxerik, eta inoiz berariaz Nafarroari zegokion lurralde-barrutirik ere bai.

Aurreko idazlanetan esandako zerbait gomuta daiteke hemen berrir: Frantziskotarrak jada 1220 inguruan segur aski Iruñean zeuden, Zangoza eta Santiago-Bidetik etorrita (ondoren mende bereko beste komentuak datoz: Erriberri, Lizarra, Tutera...; fraideak eta mojak); domingotarrak ez ziren atzera geratu, eta Iruñe (1242), Lizarra (1260) edo Zangoza (1270) aipa ditzakegu, geroagoko fraide-komentu eta mojak ahaztu gabe (Iruñea, 1597; Tutera, 1622).

Fraide karmeldarrak zerbait geroxeago iritsi ziren, baina 1277 aurretik aurkitzen ditugu Zangozan, eta hurrengo mendean, 1330 inguruan, Iruñean. Agustindar kalonjeak alboratu zituzten ditugula ere, esan behar da Agustindar Ermitauen Eskeko Ordenak bi komentu izan zituela Nafarroan: Lizarra (1295), eta Iruñea (1356).

Horra, bada, zer-nolako komentu-sarea izan zuten Eskeko Ordenek Erreinuak.

Fraideen zeregin sozio-erlijiosoak

Badago balio historiko handiko agiri bat Nafarroan, gure gai hau zuzenean eta espreski uki-



tzen duena, Tibalt II.aren testamentua da (1270). Hilburuko horretan, banan-banan izendatu zituen Errege hark gogoan hartutako komentu berriak, bakoitzari zer eman nahi zion aditzera emanez. Komentuak jasotzeko eta eraikitakoak hobetzeko diru-opariak zeintzuk diren argituta utzi zuen Tibalt II.a Erregeak.

Orduan eta gero garbi geratu zen Koroak eta gizarte nafarrak Eskeko Ordenekiko zuten interesa, arrazoi bat baino gehiagoren izenean. Beste Erreinetako aurrerapen erlijioso eta kulturalak hona ekartzean, Nafarroak Europarekin zituen harremanak izanberritu ere egin zituzten Eskekoek.

Eliz zerbitzuak bizkorki hobetu ziren (gogora Iruñea, Lizarra, Tuter, eta herri txikiagoetako predikua). Fraideok hitzun finak ziren, jantziagoak, herrietako apaizak baino.

Errege, noblezia edo burgesia eskolatuentzat goi-eskoleta euskal fraideak agertu ziren (Paris edo Okzitaniako Tolosan eskolatuak). Esate baterako, Foru Zaharra (1238) hobetu nahi izan zenean Pedro Atarrabiakoa (†1347: Doctor Facundus, frantziskotarra) izan zen horretarako Batzordearen buru, eta Martin Getariakoa (†1449) bezalako teologo enbaxadorerik izan zuen Koroak bere esanetara lan egiteko.

Aro Modernoko indarrak

Baina fraideen historia ez zen Erdi Aroan amaitu, Ordena haiek berek eta berehalako berriek Aro Modernoan ere garrantzizko lekua izan zuten nafar gizartean. Bi adibide ekarriko ditut hona, kaputxino eta jesulagunena.

Kaputxinoen historia Nafarroari bereziki lotuta ageri da (Iruñea, 1606), eta nolabait ere, XVII. mendean, Nafarroak bere erlijioso-nortasuna indarberritu nahi izan zuenean, kaputxinoek balio izan zuten horretarako, Herri-Erakundeetatik lagunduta (Tutera, 1613; Azkoien, 1625; Bera, a. 1613; Cintruenigo, 1634; Urantzia, 1648; Tafalla, 1658).

Jesulagun edo jesuitena beste molde bateko ibilera da, toki bakan baina hautatuetan jarri baitzituzten beren etxeak. Bestalde, jesuita nafarren historiak bere hasieran izen handi bat du: Frantzisko Xabier-ekoa (1506-1552). Garai berean, ibili zen Nafarroan predikari jesuitarik, baina lehenengo lkastetxea irekitzea ez zen samurra gertatu (Iruñea (1584). Iruñean egin zuen lan Aita S. Mendiburu idazleak, eta, besteak beste, Nafarroako Erreinuaren historialari handiak jesulagunak izan ziren: Aita J. Moret (1615-1687) eta F. Aleson (1634-1715).

Aurreko hilean esandakoak eta beste hauek dira Erregimen Zaharreko Nafarroan (hortaz, XVIII. menderaino) aurkitzen ditugun Institutu Erlijioso nagusienak. Baina Institutu erlijiosoen sare hauek ez zuten apenas lekuri izan Erreinu ipar-mendebaleko mendialdean, salbuespen bat edo beste izan ezik (Orreaga, Bera, edo Irantzu nahi bada), eta Nafarroako Erdialde eta Erriberan jaso ziren haien Monasterio, Komentu, Egoitza eta lkastetxeak.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharrak: 610-273580